

«DURANGO KIROLAK» ADMINISTRAZIO-ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA «SAN JOSE JESUITAK» IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA - HITZARMENA DURANGOKO UDALERRIAN JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA SUSTATZEKO.

Durangon, 2023ko urriaren 13an.

BILDUTA

Alde batetik, Mikel Ortega Marañón jauna, «DURANGO KIROLAK» Administrazio - Erakunde Autonomoaren (aurrerantzean «DURANGO KIROLAK» AEA) benetako presidente gisa eta bere eskumenei dagozkien egintzetan erakunde autonomo hori ordezkatzeko ahalmena duena, aipatutako Erakundearen Estatutuen 15. a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, Alfredo Sarriguarte Narbaiza jauna, Durangoko "San José - Jesuitak" Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren (aurrerantzean "San José - Jesuitak" ikastetxea) zuzendari gisa.

Bi alderdiek elkarri aitortzen diote Lankidetzak - Hitzarmen hau sinatzeko legezko eta jarduteko gaitasun nahikoa dutela, eta horiek horrela,

HAU ADIERAZTEN DUTE

I. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenak parte-hartzearen eta koordinazioaren ikuspegi integral, integratua eta sektore anitzekoa izan behar du, herritar guztiei modu ekitatiboan jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera izatea ahalbidetuko duena, beren bizitzako etapa ezberdinetan eta beren beharrez, interesen eta motibazioen arabera.

II. Ikastetxeak bizimodu osasuntsuak sustatzeko eragile eraginkor bihurtu direla, non jarduera fisikoak eta kirolak leku nabarmena betetzen duten.

III. «DURANGO KIROLAK» AEAK nortasun juridikoa eta ondare propioa duen Durangoko Udalaren Administrazio - Erakunde Autonomo bat dela, bere helbururik nagusienak Durangoko herritar guztiei kalitatezko kirol - praktika egin ahal izateko aukera eman eta jarduera fisiko eta kirolaren garapena beren zentzu zabalean sustatzea izanez.

IV. Gaur egun, «DURANGO KIROLAK» AEAK ez dituela kirol - espazio eta - instalazio nahikoak udalerrian egiten diren kirol - jarduera mota ezberdinen (Eskola - Kirola, Partaidetza - Kirola, Errendimendu - eta Goi Errendimendu - Kirola, Kirol Profesionala) egungo eskariari aurre egiteko.

V. Bere helburuak betetzeko, «DURANGO KIROLAK» AEAK beharreko eskumenak dituela beste erakunde batzuekin, publiko zein pribatuekin, hitzarmenak sinatzeko.

VI. «San José - Jesuitak» ikastetxeak hezkuntza - proiektu ireki, partekatu eta ingurunearekin integratua ezartzeko konpromisoa hartzen duela, balioetan oinarritutako kirol - praktika osasuntsu, inklusibo eta solidario bat sustatzea bere hezkuntza-zutabeetako bat izanez.

VII. «San José - Jesuitak» ikastetxeak, hezkuntza - gune den heinean, kirol - azpiegitura anitzak dituela erronka honi aurre egiteko.

VIII. Era berean, bi erakunde hauen helburuak bat datoz Garapen Iraunkorreko Helburuekin (aurrerantzean, GJH) eta 2030 Agendarekin. Beraz, hitzarmen honen xedea guztiz bat dator helburu horiekin, bereziki jarraian zehazten direnekin:

3. Helburua: Bizimodu osasuntsua bermatu eta herritar guztien ongizatea sustatzea.

4. Helburua: kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatu eta herritar guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea. Jarduera fisikoko eta kiroleko programak tresna eraginkortzat hartu behar dira herritarren artean funtsezko gaitasun eta gaitasun jakin batzuk garatzeko, beren jarduera fisikoaren eta kirol-jardueraren kudeaketa autonomoan ahalduntzea eta taldeko jardueretan eta bizitza profesionalean parte hartzea erraztuko dutenak, bai eta komunitate eta gizarteetan gizarte-kohesioa erraztuko duen pizgarri bat ere.

5. helburua: Genero-berdintasuna lortu eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea. Emakumeek programa horietan parte hartzeak emakumeari lotzen zaizkion estereotipoak eta gizarte-rolak zalantzan jartzera eraman behar du, eta, horrez gain, gizarteari bere trebetasunen eta gaitasunen ondorioz lortutako talentua eta lorpenak erakusteko aukera eman behar dio, eta, era berean, interakzio sozialerako aukera berriak eskaini behar ditu.

11. helburua: Hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izatea. Eskaintzen diren jarduera fisikoko eta kiroleko programak garatzen diren espazioek garapen soziala sustatu behar dute, desgaitasunen bat duten pertsonen buruzko pertzepzioak aldatuz eta pertsona horiei horietan parte hartzeko aukera emanaz, oztoporik egon arren.

16. helburua: Gizarte bidezkoak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea. Jarduera fisikoko eta kiroleko programek zubiak eraiki behar dituzte komunitateen eta pertsonen artean, desberdintasun ideologikoak eta kulturalak alde batera utzita.

17. helburua: Helburuak garatzeko aliantzak. Kirol-erakundeen, enpresen, erakunde pribatuen eta Administrazio publikoaren beraren arteko sektore anitzeko aliantzek bermatzen dute estrategia partekatu iraunkorrak eta kohesionatuak ezartzea eta garatzea, "0 kilometroaren" ikuspegitik, hau da, herritarrengandik hurbilen dagoen inguruetik. Itun horiei esker, gaitasunak, baliabideak eta esperientziak biderkatu eta optimizatu daitezke, aniztasuna nagusi den herritarrei zuzendutako iraunkortasun-helburu komunak lortzeko. "

IX. Bi alderdiek oso positibotzat jotzen dutela bi erakundeen artean urteetan garatutako lankidetzaren esperientzia.

X. Lankidetzaren hitzarmenari loturiko dirulaguntza «DURANGO KIROLAK» AEaren Aurrekontu Orokorretan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntza publikoa denez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren (aurrerantzean DLO) 22.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza horiek zuzenean eman ahal izango direla.

XI. Aipatutako DLOren 28.1 artikulua emandako dirulaguntzak bi alderdien arteko hitzarmenaren bitartez bideratzeko aukera ematen duela.

Era berean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 c) artikulua eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86.1 artikulua Administrazio Publikoaren, haien erakunde publikoen, haiekin

lotutako edo haien menpeko zuzenbide publikoko erakundeen eta Zuzenbide pribatuko subjektuen arteko hitzarmenak egitea ahalbidetzen dute.

Horregatik guztiagatik, alderdiek Lankidetzak - Hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea

1.- Lankidetzak - Hitzarmen honen xedea «DURANGO KIROLAK» AEAREN eta «San José - Jesuitak» ikastetxearen arteko lankidetzak gauzatzea da, «DURANGO KIROLAK» AEA-ak Eskola - eta Errendimendu - Kirol esparruan estrategikotzat jotzen dituen gorputz - eta kirol - jardueren garapenerako dirulaguntzak publikoak bideratu ahal izateko.

Gaur egun «DURANGO KIROLAK» AEAK jarduera horiek bideratu ahal izateko leku egokirik ez duenez, aipatutako ikastetxeko kirol - instalazioetan egiten dira.

2.- Lankidetzak - hitzarmen honen bitartez dirulagundutako gorputz - eta kirol - jarduerak, jarraian zehazten diren kirol - modalitate eta - diziplinekin lotutakoak izango dira: Esku-pilota, Futbola, Areta - Futbol egokitua, Saskibaloia eta Judoa.

3.- Eskola-Kirolaren esparruan garatzen diren gorputz- eta kirol-jarduerak lehentasuna izango dute errendimenduaren esparruan egiten direnen aurretik.

4.- Emandako dirulaguntza aurreko atalean aipatutako gorputz- eta kirol-jarduerak garatzeari dagozkion gastuak finantzatzeko erabiliko da, diruz lagundu daitezkeen gastuak lankidetzak - hitzarmen honen laugarren klausulan ezarritakoak izango direlarik.

Bigarrena.- Aurrekontu-zuzkidura eta dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

1.- Lankidetzak - hitzarmen honen bidez bideratutako dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa zortzi mila (8.000) eurokoa izango da. Gehieneko zenbatekoak ez du, «DURANGO KIROLAK» AEAK 2023ko ekitaldi ekonomikorako duen Aurrekontu Orokorren 41.3421.48101 aurrekontu - partidan ezarritakoaren arabera, baimendutako aurrekontu-kreditua gainditzen.

2.- Emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa Lankidetzak - Hitzarmen honen xede den gorputz - eta kirol - jarduerak garatzetik sortutako zuzeneko eta zeharkako kostuen estandarri dagokion modulu ekonomikoaren arabera zehaztuko da eta ondoko formula hau aplikatuz kalkulatu da:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, guztira = modulu ekonomikoa x jarduera - orduen kopurua.

Hirugarrena.- Gorputz - eta kirol - jarduerak garatzetik sortutako zuzeneko eta zeharkako kostuen estandarri lotutako modulu ekonomikoa.

1.- Gorputz - eta kirol - jarduerak garatzetik sortutako zuzeneko eta zeharkako kostuen estandarri dagokionez, «DURANGO KIROLAK» AEAK ezarritako modulu ekonomikoa hogeita hamahiru (33) eurokoa da.

2.- Zehaztutako modulu ekonomikoa gehieneko sabai ekonomikotzat hartzen da.

3.- Moduluaren zenbatekoa eguneratuko da dagokion udal-ordenantzak ezarritako DKen udal - jarduerak egin edo udal - zerbitzuak emateagatikozko prezio publikoen igoeraren proportzioan.

4.- Edonola ere, dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein baldintza aldatuz gero, esleitutako dirulaguntza alda daiteke, betiere, dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak beteta.

Laugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1.- Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Kirol - instalazioak erabiltzeko ezinbestekoak diren eta zuzenean parte hartzen duten langileen gastuak. Langileen gastuek honako kontzeptu hauek hartuko dituzte barne:

I. Langileen ordainsariei dagozkien zenbatekoak, Ikastetxeko titularrak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuota patronalaren kotizazioak barne.

b) Jarduerak garatzeko beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak , funtzionamendu-gastu barnean kokatuta daudenak eta ondoren zehazten direnak:

II. Konponketa- eta kontserbazio - gastuak:

– Eraikinak: Lankidetzeta - Hitzarmen honen xedeari lotutako kirol - instalazioak konpontzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko gastuak.

– Altzariak: Altzarien kontserbazio- eta konponketa - gastuak.

III. Kanpoko beste zerbitzu batzuk:

– Horniketak: Energia elektrikoa, ura, gasa eta erregaiak.

2.- Diruz lagundu ez diren gastuak:

a) Zergak eta tasak, BEZa barne (baita berreskuratu ezin den kasuetan ere).

b) Laguntza publikoaren xede den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak, zazpigarren klausulan eta dagokion aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera behar bezala justifikatu ez direnak, eta Lankidetzeta - Hitzarmenean ezarritako epean gauzatu ez direnak.

Diruz lagundutako gastuen eskuratzeko-kostuak ez du, inolaz ere, merkatuko balioa gaindituko.

3.- Diruz lagundu daitezkeen gastuen estaldura - aldia 2023eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko epean zenbatuko da.

Bosgarrena.- Alderdien betebeharrak eta konpromisoak

Lankidetzeta - Hitzarmen honen xedea betetzeko eta hura gauzatzeko, behean sinatzen duten alderdiek honako betebeharrak eta konpromisoak beren gain hartzen dituzte:

1.- «DURANGO KIROLAK» AEaren aldetik:

- Lankidetza - Hitzarmen honen bigarren klausulan ezarritako dirulaguntza bideratzeko guztizko zenbatekoari dagokion ekarpena egitea.
- Lankidetza - Hitzarmen honen helburua betetzeko beharreko ekintza guztiak garatu eta aurrera eramatea.
- Lankidetza - Hitzarmen hau behar bezala gauzatzeko beharrezko koordinazio-mekanismoak martxan jartzea.
- Seigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzorde Teknikoaren buru izan, haren funtzionamendua sustatu eta aipatutako klausulan ezarritako eginkizunak betetzen direla bermatzea.

2.- «San José - Jesuitak» ikastetxearen aldetik:

- Dirulaguntzaren onuradunak ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik izan behar, ezta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, batez ere sexuagatiko bereizkeriaren ondoriozkorik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren arabera.
- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko ordainketa - betebeharrak ere. Bi baldintza horiek emandako dirulaguntza likidatu arte bete behar dira, beraz, egiaztatu egingo da bete egiten direla bai emateko orduan bai ordaintzeko orduan.
- DLoren 13. artikuluan azaldutako egoeraren batean ez egotea.
- Beste edozein administrazio, erakunde publiko eta pribatutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskuratzuz edo eskatuz gero, horren berri ematea, hala badagokio, dirulaguntza ematen duen erakundearen zenbatekoa eta izena adieraziz.
- Jasotako dirulaguntza zertarako eman den eta Lankidetza - Hitzarmen honen laugarren klausulan ezarritako gastuak ordaintzeko erabiltzea.
- Ordainketa bakarrari lotutako nahitaezko egiaztagiria aurkeztea, Lankidetza - Hitzarmen honen zazpigarren klausulan ezarritako moduan eta epeetan.
- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-ekintzen menpe egon daitezkeen bitartean.
- Organo emaileari eta finantza-kontrolako organo eskudunei Lankidetza - Hitzarmen honen arabera jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa ematea.
- Dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, DKari horren berri ematea.
- Jarraipen Batzorde Teknikoari ezarritako eginkizunak betetzen laguntzea.
- Jasotako dirulaguntzaren berri emateko neurriak hartzea. Aipatutako hedapen-neurri horien euskarrietan, informatikoetan zein bestelakoetan, adierazpen hau sartzera mugatuko dira: « Durango Kirolak - Durangoko Udalak jarduera hau finantzatu du».

- DLOren 14. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.

Seigarrena. - Jarraipen Batzorde Teknikoa.

1.- Lankidetzaren Hitzarmen honetan eta bere eranskinetan adostutakoa kudeatu, jarraitu, zaindu eta betetze - mailaren kontrola egiteko Jarraipen Batzorde Tekniko bat eratuko da, ondoko partaideez osatuta:

- Durangoko Udaleko Administrazio - Erakunde Autonomoetako kudeatzailea edo hark eskuordetzen duen pertsona, batzordeko presidente gisa jardungo duena.

- «DURANGO KIROLAK» AEAko Teknikari bat.

- «DURANGO KIROLAK» AEAko Administrazioari bat, batzordeko idazkari - lanak egingo dituen, hitza izanda baina botorik gabe.

- «San José - Jesuitak» ikastetxea ordezkatzen duen pertsona bat.

Lankidetzaren Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzorde Teknikoaren jarduna, uneoro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera izango da.

2.- Honako hauek dira Lankidetzaren Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzorde Teknikoaren eginkizunak:

- Lankidetzaren Hitzarmen honetako klausulen garapena eta gauzatze zuzena kudeatzea eta haien betetze - maila gainbegiratu, kontrolatu eta egiaztatzea.

- Lankidetzaren Hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera aurkeztutako derrigorrezko dokumentazioa aztertu eta baloratzea, eta, hala dagokionean, dokumentazio osagarria eskatzea ezarritako epeetan eta eran.

- Lankidetzaren Hitzarmena betearaztearen ondoriozko interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzea. Batzordearen bitartez konponbidea lortzea ezinezkoa izanez gero, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari dagokio aipatutako interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arazten duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

- Egoki iruditzen zaizkion hobekuntzak eta aldaketak proposatzea.

3.- «San José - Jesuitak» ikastetxea, dirulaguntzaren onuradun den ikastetxea den aldetik, eta dirulaguntzaren xedearekin edo haren justifikazioarekin zerikusia duten hirugarrenak behartuta egongo dira, ezarritako eran eta epeetan, Lankidetzaren Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzorde Teknikoari, bere eginkizunak bete ahal izateko, laguntza ematera eta eskatzen zaien dokumentazio guztia aurkeztera.

Betebehar hori betetzeari uko egitea erresistentzia, aitzakia, oztopo edo ukotzat hartuko da DLOren 37. artikuluan ezarritako ondorioetarako, hala badagokio, dagozkion zigorrei kalterik egin gabe.

4.- Lankidetzaren Hitzarmenaren funtsezko aldaketarik ez duten izaera teknikoko aldaketak Jarraipen Batzorde Teknikoak berak adostu ahal izango ditu.

5.- Orokorrean, Jarraipen Batzorde Teknikoa birritan bilduko da, bilera horietako bat, gutxienez, dirulaguntzaren igorpenarekin bat etorriko da. Hala ere, batzordeak ezohiko bilerak izan ahal ditu edozein batzordeko kidek hala eskatuta. Bilerak bitarteko elektronikoen bidez egin daitezke.

Zazpigarrena.- Ordaintzeko era eta dirulaguntzaren justifikazioa.

Emandako dirulaguntza bi zatitan ordainduko da, honako era honetan:

a) Lehenengo ordaintzetan onuradunari emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 80 ordainduko da, hitzarmen hau sinatu ondoren eta abenduaren 29an baino lehen honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

– Erantzukizunpeko adierazpena (I. eranskina), DLOren 13.7 artikulua aplikatuz. Aipatutako adierazpenean ondoko betebeharrak hauek egiaztatuko dira:

o Edozein administrazio edo erakunde publiko eta pribatutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu edo, hala badagokio, jaso direla jakinaraztea, dirulaguntza ematen duen erakundearen zenbatekoa eta izena adieraziz.

o Laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik ez izatea edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, berariaz aipatuta sexu-bereizkeriagatiko debekuak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

o Aurkeztutako nahitaezko dokumentazioan jasotako datuak benetakoak direla eta dirulaguntza horien onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

o DLOren 13.2 artikuluan ezarritako egoeraren bat ez egotea.

b) Bigarren ordaintzeta gainerako zenbatekoa izango da; hots, emandako dirulaguntzaren % 20ari dagokiona, izandako gastu guztiak justifikatu ondoren. Horretarako, 2024ko martxoaren 31 baino lehen, ondoko dokumentazio hauek jasotzen duen justifikazio - kontu bat aurkeztu beharko da:

– Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen memoria, egindako jardueren zerrenda zehaztuz eta Lankidetzeta - Hitzarmen honen lehenengo klausulan (II. eranskina) ezarritako kirol - modalitatearen edo - diziplinaren arabera sailkatuta.

– Dirulaguntzaren xede diren jarduerekin lotutako gastu eta ordaintzeta guztien zerrenda sailkatua jasoko duen justifikazio - memoria ekonomikoa, hartzekodunaren identifikazioarekin, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordaintzeta datarekin; eta, orobat, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita (III. eranskina).

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren baliokidea den gastu garbi bat gutxienez justifikatu beharko da.

Bi justifikazio-memoriek «San José - Jesuitak» ikastetxearen izenean Lankidetzeta - Hitzarmen hau sinatzen duen ordezkariaren sinadura izan beharko dute, ikastetxearen zigiluarekin batera.

Zortzigarrena.- Ez - betetzeak eta itzultzeko prozedura.

1.- Dirulaguntzen onuradunak Lankidetzaren Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak, betekizunak eta betebeharrak betetzen ez baditu edo DLOren 37. artikuluan aurreikusitako edozein kasutan gertatzen bada, jasotako zenbatekoa itzultzeraren behartuta egongo da., aplikagarriak izan daitezkeen berandutze-interesekin batera. Aipatutako zenbatekoak diru-sarreraren publikotzat hartuko dira legezko ondorio guztietarako.

Era berean, DLOren 36. artikuluan aurreikusitako arrazoietakoren bat gertatzen denean dirulaguntza baliogabetu egingo da.

2.- Dirulaguntza itzultzeko eskatzeko prozedurak izaera administratiboa izango dute beti, DLOren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu.

Bederatzigarrena.- Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea

1.- Erakunde onuradunak dirulaguntzaren zenbatekoa osoa edo zati bat itzuli ahal izango du, Administrazioaren alde aurretiko eskakizuna beharrezkoa izan gabe, DLOren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikuluen arabera.

2.- Administrazioak DLOren 38.2 artikuluan xedatutakoaren arabera berandutze-interesak kalkulatu dituzten, dirulaguntza ordaintzen denetik erakunde onuradunak benetan itzuli arte igarotako denbora kontutan hartuz.

Hamargarrena.- Lankidetzaren Hitzarmenaren irautzearen arrazoiak

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan jasotako ustezkoren bat emanez gero, Lankidetzaren Hitzarmen hau irautze egingo da.

Hamaikagarrena.- Dirulaguntzen bateragarritasuna

1.- Emandako dirulaguntza bateragarria izango da, beste erakunde publiko edo pribatuen batek helburu bererako emandako dirulaguntza, diru-sarreraren edo baliabideekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada eta beti ere aldi bereko beste dirulaguntzei dagokien araudiak horri buruz ezar dezakeenari kalterik egin gabe.

2.- Hala ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gaintu, ez bakarrik edo ez beste dirulaguntza, diru-sarreraren edo baliabide batzuekin batera. Halakorik gertatuz gero, erakundeak modu frogagarrian jakinarazi beharko dio erakunde emaileari, hala badagokio, egingo lukeen itzulketa-gutunaren kopia erantsiz.

Gainfinantzaketa gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da dagokion gehieneko mugaraino.

Hamabigarrena.- Lankidetzaren Hitzarmenaren izaera juridikoa eta interpretazioa

1.- Lankidetzaren Hitzarmen honek administrazio-izaera du eta bere interpretazio eta garapenean Administrazio Publikoaren hitzarmenei dagokien administrazio-ordenamendu juridikoa aplikatu behar zaio, bereziki Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.etik 53.era bitarteko artikuluetan eta 140.2 artikuluan xedatutakoak.

2.- Lankidetzaren hitzarmen hau administrazio publikoen kontratuei dagokien legeriaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.- Lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeak ez dakar esku hartzen duten alderdiek beren eskumenei uko egitea edo eskumen horiek aldatzea; hartzen dituzten konpromisoak dagozkien erantzukizunak bakarrik egiten dituzte bere.

Hamahirugarrena.- Lankidetzaren hitzarmenaren indarraldia.

Lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen den egunetik 2024ko apirilaren 14ra bitartean izango ditu ondorioak.

Bi alderdiek azaldu eta hitzartutako guztiarekin bat etorritik, Lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

«DURANGO KIROLAK» AFAko benetako presidentea
Durango, 19 de diciembre de 2023

Mikel Ortega Maraño
Durango Kirolak-eko Lehendakaria
Presidente Durango Kirolak

Elektronikoki izenpeturiko agiria
«San José Ikastetxea»-ko zuzendaria

